

**AGINDUA, TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMOKO SAILBURUARENA, TURISMO AKTIBOAN DIHARDUTEN PERTSONAK EUSKADIKO TURISMO ENPRESEN ETA JARDUEREN ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO AGINDUA EGITEKO PROZEDURA HASTEN DUENA.**

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 10.36 artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio, Konstituzioaren 148.1.18 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, turismoaren arloko eskumen eskusiboa.

Turismoari buruzko uztailaren 28ko 13/2016 Legeak Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-jarduera garatu behar den esparru juridiko orokorra ezarri du. Turismoari buruzko uztailaren 28ko 13/2016 Legearen VI. tituluak interes turistikoko jardueratzat hartzen ditu "Euskadin turismoa dinamizatzen laguntzen dutenak eta turisten mugimendua eta egonaldia errazten dutenak", eta horien artean sartzen ditu 72.b) artikulua "naturako kirol-jarduerak, hala nola turismo aktiboa, eta abenturakoak".

Horrelako enpresek ez dute Turismoaren Legean beren jardueran sartzeari eta jarduteari buruzko erregulaziorik, ezta bete behar dituzten funtsezko betekizunei buruzkoa ere. Horregatik, Turismoaren Legearen 74. artikulua turismo-agintaritzaren esku uzten du berariazko araudi bat egitea eta abian jartzea, jarduera indartzeko, sustatzeko eta errazteko, eta lan hori Jaurlaritzako beste sail batzuekin batera egin beharko da.

Era berean, Turismoaren Legearen 24. artikulua arabera, Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroa administrazio-izaerako erregistro publikoa da, eta turismo-enpresak nahiz turismo-jarduera batean aritzen diren pertsona fisiko edo juridikoak inskribatzea du helburu.

Ildo horretan, etorkizuneko araudi sektorial bati aurrea hartuz, legeak aurreikusten du Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan sartzeari legearen VI. tituluan zerrendatutako enpresak edo establezimenduak, baldin eta erregistroan inskribatzea eskatzen badute erregelamenduz ezarritako baldintzetan.

Turismo aktiboaren eta abenturaren jarduera arautzen duen erregelamendurik ez izateak ez du eragotzi jarduera horretan aritzen diren enpresak agertzea; izan ere, halakorik ez badago, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentarauari (barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa) jarraiki, askatasunez sartu eta jardun daitekeela ulertu behar da, baina erregistroan inskribatzen ez badira, zaila da enpresa horiek erregistroan inskribatzea, eta horrek zailtasunak eta arazoak sortu ditu enpresa horiek beste autonomia-erkidego batzuetako lurraldeetan jarduten dutenean, administrazio-erregistro batean inskribatzea eskatzen baita.



Hala, agindu-proiektu honen xedea da agindu bat egitea eta onartzea, operadore horiek Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan inskribatu ahal izateko, jarduera hori egiten duten enpresei ahalik eta segurtasun juridiko handiena emanez.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen xedea da xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzea, eta 12.1 artikuluan ezartzen du prozedura horiek dena delako gaian eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko direla. Era berean, lege horren 13.1 artikulua hasteko agindu horrek bete behar dituen baldintzak eta gutxieneko edukia ezartzen ditu.

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Agindu honen xedea da turismo aktiboan diharduten pertsonak Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan inskribatzeko agindu-proiektua egiteko prozedura hastea. Agindu horrek honako atal hauetan xedatutakoa bete beharko du:

1.- Proiektuaren xedea eta helburua

Proiektatutako xedapenaren xedea da turismo aktiboko eta abenturako jarduerak egitea xede soziala edo jarduera nagusia duten enpresei, edozein forma juridiko dutela ere, Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan inskribatzeko aukera ematea. Erregistro hori Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroari buruzko uztailaren 16ko 112/2019 Dekretuak arautzen du.

2.- Bideragarritasun juridikoa eta materiala:

Euskal Autonomia Erkidegoak turismoaren arloan duen eskumen eksklusiboa garatzeko, Turismoari buruzko 13/2016 Legeak turismo aktiboko jarduera sartzen du, interes turistikoko jardueratzat hartzen baititu turismoa dinamizatzen laguntzen duten eta Euskadin turisten mugimendua eta egonaldia errazten duten jarduerak.

Horregatik, 112/2019 Dekretuaren azken xedapenetako bigarrenak, interes turistikoko jarduerari buruzkoak, honako hau ezartzen du: «Interes turistikoko jarduerak egiten dituzten enpresa eta establezimenduak, Turismoaren uztailaren 28ko 13/2016 Legearen VI. tituluaren aurreikusitakoak, inskribatu ahal izango dira enpresa eta jarduera turistikoen erregistroan, haiek arautzen dituzten erregelamenduek xedatzen dutenaren arabera».

Turismo aktiboko eta abenturako jarduera arautzen duen erregelamendurik ez egoteak ez du eragotzi jarduera horretan aritzen diren enpresak agertzea, eta, beraz, Erregistroan inskribatuta ez egoteak zaildu egiten du enpresa horiek jarduera hori egin dutela egiaztatzea, eta horrek zailtasunak sortu ditu jarduerak beste autonomia-erkidego batzuetako lurraldeetan egiten dituztenean. Hori dela eta, guztiz beharrezkoa da izena

emateko aukera ematea turismo aktiboko eta abenturako jarduerak egitea xede soziala edo jarduera nagusia duten enpresei, haien forma juridikoa edozein dela ere. Neurri horrek, gainera, ez du aurretik juzgatzen Turismoaren Legea garatzeko jarduera arautzeko erregelamendu bat promulgatzea.

Azkenik, 112/2019 Dekretuaren azken xedapenetako hirugarrenak ahalmena ematen dio turismo-arloan eskumena duen sailaren titularrari erregistroaren egitura eta osaera aldatzeko, «erregistroaren liburuak, atalak eta azpiatalak ezabatu, sartu edo haien izenak aldatuz, erregistroa turismo-enpresa eta -jarduera desberdinetara hobeto egokitu ahal izateko. "

3.- Ordenamendu juridikoan izango dituen ondorioak:

Izapidetzen ari den aginduak ez du araurik indargabetzen. Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroari buruzko uztailaren 16ko 112/2019 Dekretua garatzea ekarriko du. Garapen hori 112/2019 Dekretuaren azken xedapenetako bigarrenean dago aurreikusita, 13/2016 Legearen VI. tituluan araututako interes turistikoko jarduera guztietarako.

4.- Aurrekontuan izango duen eragina

Xedapenak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren aurrekontuetan izango duen eraginari dagokionez, xedapen horretatik eratorritako antolamendu-prozeduren administrazio-kudeaketak eragindako gastuak gaur egun dauden giza baliabideekin eta baliabide materialekin hartuko dira beren gain, eta, beraz, ez du aurrekontu-eragin aipagarriarik izango.

Sektore pribatuari dagokionez, proiektuak oso eragin ekonomiko txikia du turismo aktiboko enpresetan, kontuan hartuta esku-hartze administratiboaren ondoriozko betebeharren jatorria uztailaren 28ko 13/2016 Legea bera dela, eta eskakizun horiek arau honetan garatzeak ez dakarrela inolako karga ekonomikorik. Era berean, azpimarratu behar da turismo aktiboko euskal enpresak Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan inskribatzeak aukera emango diela enpresa horiei beren jarduera Estatuko beste autonomia-erkidego batzuetan garatzeko.

5.- Generoaren gaineko eragina

Izapidetzen ari den agindu-proiektuak ez du inolako eraginik genero-ikuspegitik. Beraz, ez da generoaren arabera eraginari buruzko txostenik egin behar; izan ere, Jaurilaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpenaren lehen jarraibidearen 2. puntuaren a) letran ezarritako salbuespena aplikatu daiteke. Ebazpen horren bidez, Gobernu Kontseiluaren Erabakia, generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak onartzekoa, argitaratu zen: "Generoaren ikuspegitik garrantzirik ez dutenak, emakumeen eta gizonen egoeran eraginik ez dutelako edo eragin txikia dutelako".

Kasu horretan, generoaren arabera eraginari buruzko txostenaren ordeztu, txosten bat egin beharko da, eta bertan behar bezala justifikatu ikuspegi horretatik garrantzirik ez duela, aipatutako jarraibideen II. eranskinean aurreikusitako baldintzetan, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak dagokion egiaztapen-txostena egingo du.

6.- Egokitzen jotzen diren izapideak eta txostenak

Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 13.1 artikuluan e) letran xedatutakoaren arabera, hasteko aginduak adieraziko ditu proposatutako araudiaren gaia eta edukia kontuan hartuta egokitzen jotzen diren izapideak eta txostenak.

a) 6/2022 Legearen 11.4 artikuluan arabera, ez da beharrezkotzat jotzen herritarrei aurretiazko kontsulta egiteko izapidea egitea, eta izapide hori bete da entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapidearen bidez, eragindako herritarrek biltzen edo ordezkatzeko dituzten erakundeek eta elkarteek parte hartzeko prozeduraren instrukzio-fasean, baldin eta haien helburuek lotura zuzena badute xedapenaren xedearekin.

b) Hasteko agindu hau egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratzea (Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 13.2 artikulua), bai eta Legesarea lankidetzaren gunean ere (Lege-proiektuak eta xedapen orokorrak egiteko eta izapidetzeko prozeduraren jarraibideak, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2018ko abenduaren 28ko Erabakiaren bidez onartuak).

Prozeduran zehar sortzen den garrantzi juridikoko informazioa Legegunea euskal araudiaren atarian argitaratu behar da, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen xedatutakoarekin bat etorritu.

c) Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren agindu-proiektua idaztea.

d) Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren agindu baten bidez, alde aurreko onarpena eman beharko zaio proiektuari.

Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2010ko abenduaren 28ko Erabakiaren bidez onartutako lege-proiektuak eta xedapen orokorrak egiteko eta izapidetzeko prozedurako jarraibideen arabera, alde aurreko onarpenaren agindua, arau-proiektua eta beharrezko memoriak Legesarea gunean argitaratuko dira.

e) Generoaren arabera eraginari buruzko txostena.

Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 14.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, proiektuaren testua idatzi ondoren, generoaren arabera eraginari buruzko txostena idatziko da.

Ez da generoaren arabera eraginaren ebaluazio-txostenik sartuko, eta behar bezala justifikatu beharko da genero-ikuspegitik garrantzirik ez duela, Agindu honen 5. atalean adierazitako ebaluazioa egiteari buruzko Gidalerroen II. eranskinean aurreikusitako baldintzetan.

f) Arau-eragina aztertzeko memoria, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.3 artikulua arabera, nahitaez, xedapen horretan aurreikusitako moduan eta edukiarekin.

g) Txosten juridikoa.

Beharrezkotzat jotzen da txosten juridiko bat egitea, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

h) Nahitaezko txostenak eta irizpenak: funtsezkoak ez diren txosten hauek eskatuko dira aldi berean eta hilabeteko epe komunean, xedapenaren testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan argitaratzen denetik zenbatzen hasita:

- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen txostena, genero-inpakturik ez dagoela egiaztatzeko.
- Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duenak, 2. artikuluan agindutakoari jarraituz, xedapen orokorrekin euskararen erabileraren normalizazioan zer eragin duten eta hizkuntza arloan indarrean dagoen araudia betetzen duten ala ez argitzeko.
- Enpresan duen eraginari buruzko txostena, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua erakunde autonomoaren txostena, institutu hori sortzen duen 9/2007 Legearen 4.1 o) artikulua arabera, nahitaezko txostena eskatuko zaio, proiektuak kontsumitzaile eta erabiltzaileei eragiten dielako.
- Euskadiko Kontsumoko Kontsulta Batzordeari kontsulta, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutua onartzen duen 6/2003 Legearen 36 a) artikuluan xedatutakoaren arabera, kontsulta egitea nahitaezkoa da, izapidetzen ari den arau-proiektuak gai horri eragiten dielako.
- Proiektua Euskadiko Turismo Mahaia helaraztea, Euskadiko Turismo Mahaia sortzen duen 5/2015 Dekretuaren 2.c) artikulua aplikatuta. Kontsulta-organo horri dagokio turismoaren arloko arau-proiektu berriak eztabaidatu eta aztertzea.
- Lehiaren Euskal Agintaritzaren txostena, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko 1/2012 Legearen 3.5 artikulua arabera, gai horri eragiten dioten proiektuetan nahitaezko irizpena ematen duena.

i) Entzunaldia eta jendaurreko informazioa.

Behin testu arauemailea aldeztu aurretik onartuta, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 17. artikuluan aurreikusitako

entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidea egingo da. Izapide horren bidez, herritarrek parte hartzeko eskakizuna beteko da.

Entzunaldia eta jendaurreko informazioa aurreko apartatuan aurreikusitako gainerako izapideekin batera egingo dira, epe erkide berean, aldez aurreko onarpena duen xedapenaren testua Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

j) Nahitaezko txosten eta irizpen funtsezkoak.

Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 19. artikulua xedatzen duenez, espedientea aurreko artikuluetan aurreikusitako izapideen arabera osatu ondoren, honako txosten hauek eskatu eta bete beharko dira:

- Proiektatutako Aginduak udalerrien eskumen propioei berariaz eragiten ez dienez, proiektatutako Aginduak Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen nahitaezko aurretiazko txostena behar ez duela uste da.

- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ekonomiaren eta arauen kontrolari buruzko txostena. Txostena nahitaezkoa da, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuan (25. artikulua eta hurrengoak) eta eremu horretako barne-ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen 464/1995 Dekretuan (41. artikulua eta hurrengoak) xedatutakoa aplikatuz.

- Ez da nahitaezkoztat jotzen Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena; izan ere, Eusko Jaurlaritzaren Dekretu baten Agindu bidezko erregelamendu-garapena ezin da sartu Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3. artikuluko 1. apartatuan jasotako kasuen artean.

Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Arautzeko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 12.i) artikulua arabera, proiektatutako araua egiteko prozedurak sailaren txosten juridikoa baino ez du behar, eta legezketasun-txostena egitetik salbuetsita gera daiteke; izan ere, eduki arauemailea duten eta Eusko Jaurlaritzak onartutako indarreko dekretu bat garatzeko edo aplikatzeko ematen diren xedapenak jasoko dituen agindu-proiektu bat da.

k) Azken espedientea eta prozeduraren memoria laburra.

Azken espedientea 6/2022 Legearen 24.1 artikuluan xedatutakoaren arabera osatuko da. Era berean, prozedura osoaren memoria labur bat erantsiko da, 24. artikulua 2. eta 3. apartaketan adierazitako edukiarekin.

7.- Itzulpen edo idazketa elebidunerako teknika.

Dekretu-proiektua Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko Erabakian aurreikusitakoaren arabera idatzi beharko da. Erabaki horren bidez, lege, legegintza-dekretu, dekretu edo agindu forma hartzen duten xedapen orokorrak bi hizkuntzatan idazteko neurriak onartzen dira.

Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko, IZO Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren itzulpena erabiliko da, 6/2022 Legearen 27.3 artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako itzulpen-zerbitzuak zentralizatzeko apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

8.- Xedapenak uki ditzakeen subjektuen eta antolakunderik adierazgarrien aurretiazko identifikazioa.

AKTIBA Elkarteak da xedapenak gehien eragin diezaiokeen erakundea. Nolanahi ere, jendaurrean jartzeko izapideak proiektatutako Agindua jakinaraziko lieke haren eraginpean egon litezkeen beste elkarte edo pertsona batzuei.

9.- Urteko Araugintza Plana

Proiektatutako araua 2023ko Urteko Araugintza Planean berariaz sartu ez bada ere, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari dagozkion jardueren parte da, Turismoaren 13/2016 Legearen 74. artikuluen arabera, eta turismo aktiboaren erregelamendu-garapenean jasotakoen artean sartzen da, eta hori berariaz adierazita dago aipatutako planean.

10.- Prozedura "Tramitagune" aplikazio informatikoaren bidez izapidetzea, Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakian eta 2012ko azaroaren 27ko Erabakian xedatutakoaren arabera. Erabaki horien bidez, xedapen orokorrak egiteko prozedura izapidetzeko jarraibideak onartu ziren, eta 2012ko azaroaren 27ko Erabakiaren bidez, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren zenbait prozeduraren izapidetze elektronikorako jarraibideak onartu ziren.

Bigarrenena.- Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 13/2021 Dekretuaren 8.1.a) artikuluen arabera, Turismo eta Merkataritza Sailburuordetzako Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza izendatzea prozedura izapidetzeko organo arduradun.

Hirugarrena.- Agindu honen berri ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan, Legesarea lankidetzagunean eta Legegunea plataforman, 6/2022 Legearen 13.2 artikuluan eta Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakian (xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartzen dituen) xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren egunean.

Sinadura elektronikoa:

JAVIER HURTADO DOMINGUEZ

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMOKO SAILBURUA